

**2016ko URRIAREN 27an UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIKO OSOKO
BILKURAREN AKTA**

14 zk.

Zarauzko udaletxeko batzar-aretoan, 2016ko urriaren 27an, iluntzeko zazpitan, Udalbatzarra bildu da, egun eta ordu horietarako aurretik deituta zegoen ohiko bilkura egiteko xedez.

Honako zinegotzi hauek bertaratu dira:

Batzarburua	Xabier Txurruka Fernandez jn.
Bertaratutako zinegotziak	Maite Garrastazu and. Jesus Arana Gomez jn. Nekane Iribar Iriondo and. Ixidor Larrañaga Ayerbe jn. Iban San Martin Hernandez jn. Miren Letamendia Belloso and. Jon Andoni Urdangarin Urrutia jn. Iratxe Zorrozuza Eguiazabal and. Mikel Goenaga Gubia jn. Naiara Carvajal Larrañaga and. Iñaki Eizagirre Eizagirre jn. Karmele Alberdi Linazasoro and. Aitor Korta Etxabe jn. Xabier Vazquez Izquierdo jn. Gloria Vazquez Herranz and. Pablo Garcia Astrain jn. Ana De Benito Sanz and. Oihane Delgado Pita and.
Ez da etorri	Ane Arruti Lopetegi and.
Idazkaria	Ines Diaz de Villafranca Arzamendi and.
Kontu-hartzailea	Lioba Maiza Rekondo and.

Bilkurari hasiera emanda, **idazkari** andreak jakitera eman duenez, EH BILDU udal taldeko zinegotzi **Ane Arruti Lopetegi** andreak, une honetan amatasun atsedendian dagoenak, bere botoa eskuordetzan utzi dio bere taldearen bozeramaileari, Mikel Goenaga jaunari, atsedeen horrek irauten duen bitartean; eta hori, apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, Euskadiko Toki Erakundeak aurreikusitakoaren arabera.

Ondoren, eguneko aztergaiak aztertu eta eztabaidatu ditu Udalbatzarrak. Bilkura honela izan da:

GAI-ZERREDA

1.- AURREKO BILKURAREN AKTA ONARTZEA

a) 2016ko irailaren 29koa

Aho batez onartu dute, zuzenketarik gabe.

2.- UDAL ORGANOEEN KUDEAKETAREN KONTROLA

a) Alkatetzaren dekretuak: 2016ko irailaren 26tik urriaren 21era

Segidan, Alkatetzak 2016ko irailaren 26tik urriaren 21era erabakitako dekretuen berri izan du Udalbatzak.

b) Tokiko Gobernu Batzarra: 2016ko irailaren 26tik urriaren 17ra

Era berean, Tokiko Gobernu Batzarrak 2016ko irailaren 26tik urriaren 17ra hartutako erabakien berri izan du Udalbatzak.

3.- INFORMAZIOA

a) Finantza eta aurrekontuei buruz: 2016ko 1. hiruhilekoa

Udalbatzarrak jakin berri du 2016ko lehenengo hiruhileko finantza eta aurrekontuei buruzko informazioa, alkate jaunak aurkeztu duena, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, xedatutakoaren arabera.

b) Ordainketako batez besteko epeari buruz: 2015eko 4. hiruhilekoa

Hurrena, Udalbatzarrari jakitera eman zaio 2016ko lehenengo hiruhileko ordainketako batez besteko epeari buruzko informazioa, alkate jaunak aurkeztu duena, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, xedatutakoaren arabera.

4.- KREDITU ALDAKETARAKO ESPEDIENTEA 2016. EKITALDIRAKO AURREKONTUAN: 2016-KALD-000011-00 ZK. (KREDITU TRANSFERENTZIAK). HASIERAKO ONESPENA.

2016 D 200 0013 espedientea

2016-KALD-000011-00 zenbakia duen kreditu aldaketarako espedientea tramitatu du Udalak: 2016ko ekitaldirako aurrekontuari dagokio, eta kreditu transferentzien bidez gauzatuko da.

Ikusita egin diren txostenak eta espedientean dauden dokumentuak, Udalbatzarrak, aho batez,

ERABAKI DU

2016-KALD-000011-00 zenbakia duen kreditu aldaketarako espedientea onartzea. Udal honek 2016. ekitaldirako duen aurrekontuari dagokio, eta kreditu transferentzien bidez gauzatuko da, laburpen honen arabera:

KREDITU GEHIGARRIAK

Kap.	Izena	Gehikuntzak
2	Gastuak ondasun arruntak eta zerbitzuetan	42.981,91 €
GUZTIRA ...		42.981,91 €

BALIABIDEAK

Kap.	Izena	Zenbatekoa
6	Inbertsio errealak	42.981,91 €
GUZTIRA ...		42.981,91 €

5.- 2015eko GASTUAK 2016ko AURREKONTUARI TXERTATEA

2016 DDDD 0001 espedientea

2015. ekitaldiko aurrekontua likidatu ondoren 2015. ekitaldian onartua izan behar ziren gastuak kontabilizatu gabe gelditu dira:

Hornitzailea	Azalpena	Data	Kopurua
Praxair España, SLU	2015/11/01etik 2016/10/31ra oxigeno bonben botila berritzea. Kiroldegian.	2015-11-30	51,57 €
Goienar Elkarte	Argi indarraren faktura eta aldaketa klimatikoari buruz hitzaldiak	2015-12-09	242,00 €
GUZTIRA			293,57 €

Abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 34. artikuluan ezarritakoa beteaz eta ikusita Antolakuntzako informazio-batzordeak horren alde emandako irizpena, Udalbatzarrak, aho batez,

ERABAKI DU

2015. ekitaldiko gastuak, 293,57 euroko zenbatekoaz, 2016. ekitaldiko aurrekontuari txertatzea onartzea.

6.- ZARAUZKO UDALEKO ENPLEGATUEK PRESTAKUNTZA-SAIOETAN PARTE HARTZEKO ERREGELAMENDUA. HASIERAKO ONESPENA

2016 I 312 0001 espedientea

Akordio-zirriborroa irakurri ostean, batzarburuak horrela aginduta, proposamena bozkatu dute. Bozketak emaitza hau izan du:

Aldeko botoak:	13	(9 EAJ-PNV, 2 PSE-EE, 2 Irabazi Zarautz)
Kontrako botoak:	–	
Abstentzioak:	7	(7 EH Bildu)

Ondorioz, adierazitako gehiengoaz, Udalbatzarrak erabaki hau hartu du:

“Araudi honen helburua honakoak arautzea da: batetik, Zarauzko Udalak egiten duen Udal Prestakuntza Planaren lanketan, garapenean eta jarraipenean sartzen diren alderdi guztiak, eta bestetik, udal enplegatuen asistentzia ikastaro, jardunaldi, hitzaldi, eta antzekoetara, euren lanposturako prestakuntza indibidualizatua dakarten kasuetan.

Urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Testu Bategina onartzen duenak (TREBEP), 14 artikuluan xedatutakoaren arabera, enplegatu publikoen eskubide indibiduala da etengabeko prestakuntza edukitzea eta bere ezagutzak eta gaitasun profesionalak etengabe eguneratzea, zerbitzu-harremanaren berezko alderdi bat delako hori. Era berean, lan-arriskuen prebentzioan indarrean dagoen legediak xedatzen du enpresariaren betebeharra dela enplegatu bakoitzak prestakuntza teoriko eta praktikoa, nahikoa eta egokia, jasotzen duela bermatzea.

Baina, aldi berean, enplegatuek berez eduki beharreko jarrera-printzipiotzat hartzen du prestakuntza TREBEPak berak, enplegatu horiek prestakuntza eta kualifikazioa eguneratuta mantentzera behartzen duenean. Prestakuntzak daukan alderdi bikoitz horregatik, hau da, batetik, eskubidea eta, bestetik, betebeharra delako, arautu egin behar da Udalean ematen den prestakuntza, bere planifikazio eta antolaketa, eta prestakuntza-saio horretara joategatik sortzen diren gainerako alderdi guztiak.

Antolakuntzaren arloko informazio-batzordearen irizpena ikusi ondoren, Udalbatzarrak, botoen gehiengoaz,

ERABAKI DU

Lehenengoa.- Hasierako onespena ematea ZARAUZKO UDALEKO ENPLEGATUEK PRESTAKUNTZA-SAIOETAN PARTE HARTZEKO ERREGELAMENDUari, Antolakuntzako informazio-batzordeak ontzat emandako testuaren arabera.

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean jartzea, 30 eguneko epean, interesdunek erreklamazio eta iradokizunak aurkeztu ahal izan ditzaten. Jendaurreko informazio-izapidea jakitera emango da udaletxeko iragarki-taulan zein web-orrian jarriko den eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean zein probintzian gehien zabaltzen diren egunkarietako batean argitaratuko den iragarkiaren bidez.

Hirugarrena.- Erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu ezean, ERREGELAMENDUA behin betiko onartutzat emango da, berariazko erabakirik hartu behar izan gabe. Dena den, indarrean sartzeko, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean testu osoa argitaratu beharko da.”

ZARAUZKO UDALEKO ENPLEGATUEK PRESTAKUNTZA-SAIOETAN PARTE HARTZEKO ERREGELAMENDUA

ZIOEN AZALPENA

Araudi honen helburua honakoak arautzea da: batetik, Zarauzko Udalak egiten duen Udal Prestakuntza Planaren lanketan, garapenean eta jarraipenean sartzten diren alderdi guztiak, eta bestetik, udal enplegatuen asistentzia ikastaro, jardunaldi, hitzaldi, eta antzekoetara, euren lanposturako prestakuntza indibidualizatua dakarten kasuetan.

Urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Testu Bategina onartzen duenak (TREBEP), 14 artikuluan xedatutakoaren arabera, enplegatu publikoen eskubide indibiduala da etengabeko prestakuntza edukitzea eta bere ezagutzak eta gaitasun profesionalak etengabe eguneratzea, zerbitzu-harremanaren berezko alderdi bat delako hori. Era berean, lan-arriskuen prebentzioan indarrean dagoen legediak xedatzen du enpresariaren betebeharra dela enplegatu bakoitzak prestakuntza teoriko eta praktikoa, nahikoa eta egokia, jasotzen duela bermatzea.

Baina, aldi berean, enplegatuek berez eduki beharreko jarrera-printzipiotzat hartzen du prestakuntza TREBEPak berak, enplegatu horiek prestakuntza eta kualifikazioa eguneratuta mantentzera behartzen duenean. Prestakuntzak daukan alderdi bikoitz horregatik, hau da, batetik, eskubidea eta, bestetik, betebeharra delako, arautu egin behar da Udalean ematen den prestakuntza, bere planifikazio eta antolaketa, eta prestakuntza-saio horretara joategatik sortzen diren gainerako alderdi guztiak.

PRESTAKUNTZA-SAIOAK: DEFINIZIOA ETA MOTAK

Erregelamendu honen ondorioetarako honakoak izango dira prestakuntza-saioak: trebatzeko eta ikasteko ikastaroak, iraupen laburreko informazio jarduera puntualak, hala nola, prozedura bat edo antzekoak ikasteko kongresuak, jardunaldiak, mintegiak, bilerak etab.

Prestakuntza-saioak izan daitezke:

a) Zarauzko Udalak egiten duen Prestakuntza Planean sartutako saioak. Ondorio horietarako, erakundeak antolatutako prestakuntza-saiotzat hartuko dira, beste erakunde edo prestakuntza-zentro baten ekimenez hasitako prestakuntza-saioak izanagatik, Udaleko organo eskudunen iritziz koherenteak direnak Udalaren Prestakuntza Planarekin, eta ondorioz, Udalaren prestakuntza-eskaintzaren barruan sartzten direnak.

b) Zarauzko Udaleko enplegatuen ekimenez antolatutako prestakuntza-saioak.

Erakundeak antolatutako prestakuntza-saioak derrigorrezkoak izan ahalko dira saio horiek antolatu diren jendearentzat, edo borondatezkoak, eskabidea eginez gero.

EUSKARA IKASTAROAK, BESTE HIZKUNTZA ETA MASTER BATZUK

Erregelamendu honek ez ditu arautuko euskara eta atzerriko hizkuntzak ikastearekin lotutako prestakuntza-beharrak. Erregelamendu honek ez die eragingo, ezta ere, iraupen luzeko eta arazo bereziko prestakuntza-saioei, esate baterako, master, graduatu-ondoko eta abarrei.

I. TITULUA UDALAK ANTOLATUTAKO PRESTAKUNTZA PLANA

1. artikulua.- Prestakuntza Planaren helburuak

Udal Prestakuntza Plana araudi honen arabera onartuko da. Enplegatu publikoei zuzendutako prestakuntza-saioen pakete bat modu ordenatuan jasotzen duen dokumentu bat da Plana, eta hauek dira bere helburu nagusiak:

- Udal enplegatuen ezagutzak hobetzea, handitzea eta eguneratzea, beren eginkizunak modu eraginkorragoan egin ditzaten, eta pertsona horiek hobe egokitu daitezten euren lanpostuetara.
- Udal enplegatuen ezagutza eta gaitasun profesionalen etengabeko eguneraketa bideratzeko lanabesa izatea.
- Teknikak eta ezagutzak eguneratzea, gertatzen diren aldaketa teknologiko eta legezkoen arabera.
- Ezagutza eta kontzientziario bide izatea, Lan Arriskuen prebentziorako eta lehen sorospentarako.
- Erakundea hobetu eta modernizatzeko Udalaren estrategiak garatzen laguntzea.
- Udaleko enplegatuek herritarren zerbitzura egiten duten lana hobetzeko pizgarri eta motibazioa izatea.
- Izaera praktikoa izango du, eta enfasi berezia jarriko da prestakuntza-saioen benetako erabilgarritasuneari, gehiegizko teoriak ebitatuko dira, eta gure erakundean gehiago edo gutxiago aplikatu litezkeen kasu errealetan, esperientzia arrakastatsu eta porrotetan... irakasleek daukaten esperientzia aprobetxatuko da. Horiek horrela, ahal den neurrian, ahalegina egingo da udal enplegatuek emandako barne prestakuntza bultzatzeko.

Adierazitako helburuak lortzeko, Prestakuntza Plana eskaintza zabala egiten saiatuko da: esate baterako, laneko kontu eta gai tekniko oso zehatzei buruzko ikastaroak, arduradunentzat zuzendaritza-garapenarekin eta aginte-funtzioekin lotutako ikastaroak, edo talde jakin bati berariaz zuzendutako ikastaroak.

Prestakuntza Planaren iraunaldia edo irismena planean bertan zehaztuko da, eta dagokion organo eskudunak onartuko du.

Hortaz, Planaren helburua da Udaleko arlo guztietarako eta organigramako maila guztietarako prestakuntza-behar orokorreari erantzutea, eta prestakuntza-saio indibidualizatuen bidez osatuko da Plan hori. Araudi honetako artikuluetan xedatutakoaren arabera arautuko dira saio horiek.

2. artikulua.- Eremu subjektiboa: Udal Prestakuntza Planaren saioetan izena eman dezaketen udal enplegatuak

Lanpostu berean urtebetetik gora jarraian edo aldizka lanean dabilzan udal enplegatu guztiei eskainiko zaie Prestakuntza Plana, eta baita ere, enplegatuak lanean denbora hori egingo duela aurreikusten denean, betiere beren lan-egoera ez bada hauetakoren bat:

- Izendatuta aldi baterako ordezkapentarako (oporrak, aldi baterako ezintasun egoera, etab.).
- Izendatuta enplegua sustatzeko programen bidez, interes sozialeko programen bidez edo gizarte bazterketa jasateko arriskuan dauden pertsonak gizarteratzeko programen bidez.
- Izendatuta denbora jakin baterako (lan-pilaketagatik, programak, etab.), aurreikusitako denbora urtebetetik beherakoa izanik.

Nolanahi ere, salbuespen modura eta dagokion arduradunak eskaera arrazoitua egin ondoren, aurreko puntuan sartuta dauden taldeetako pertsonak Prestakuntza Planean eskainitako saioetan izena eman ahalko dute. Era berean, Udaleko kargu publikoek eta behin-behineko enplegatuek Prestakuntza Planeko saioetan parte ahal izango dute, karguan egon behar diren denboragatik eta prestakuntza motagatik egingarria eta efektiboa bada.

3. artikulua.- Prestakuntza Plana egitea: proposamenak aurkeztea eta zein prestakuntza- saio egingo den erabakitzea

Giza Baliabideetako arduradunari Prestakuntza Planerako proposamenak helaraziko zaizkio, eta bera arduratuko da eskaerak biltzeaz, honela:

- Udal Gobernuak aipamena eginda, antolakuntza hobetzera eta modernizatzera bideratutako prestakuntza-

- saioen inguruan, gobernuaren programaren barruan
- Arlo eta departamentuetako arduradunek eurek proposamenak eginda antzeman dituzten prestakuntza-beharren inguruan, edo arduradun horien bidez proposamenak helarazita.
- Izaera orokorreko zerbitzuak proposatuta (Zerbitzu Juridikoak, Informatikako Zerbitzua, Giza Baliabideak, etab.), beharrak antzeman direlako, arauetan eta teknologian aldaketak gertatu direlako, etab.
- Ordezkarri sindikalek proposamenak eginda.
- Udaleko edozein enplegatuk zuzenean eskaerak eginda.
- Aurretik egindako prestakuntza-saioen emaitzaren ebaluazioen ondorioz.

Proposamen guztiek, kontuan izango badira, derrigorrez izan beharko dute honakoa: prestakuntza-saioaren xedea eta irismena zehazteko behar besteko informazioa, beharraren justifikazioa eta zein enpleguarentzat den interesgarria: helburuak, edukien programa, ikasle kopurua, prestakuntza-saioaren iraupena...

Eskabide guztiak jasotakoan, proposamen bakoitzaren helburuak eta dagokion justifikazioa behar bezala zehazteko beharrezko diren gai guztiak argituko ditu Giza Baliabideetako arduradunak. Eta dagokion negoziazioaren bidez, Prestakuntza Batzordeak proposatu egingo du Prestakuntza Planean sartzen diren saioen zerrenda, zerbitzuaren bitarteko ekonomikoan, lehentasunen eta beharren arabera. Plana garatu edo gauzatzera, zenbait egoerek justifikatu egiten badute aurreikusita ez zegoen edo hasieran onartu ez zen prestakuntza-saio bat egitea, hala badagokio, batzordeak Prestakuntza Plana handitu edo aldatu ahal izango du

Nolanahi ere, hauek dira prestakuntzaren organo arduradunak:

- Alkatetza. Udalaren arduradun gorena denez, berari dagokio Prestakuntza Plana eta haren aldaketa puntualak onartzea.
- Giza Baliabideetako zinegotzigoa. Bera da enplegatuen kudeaketaren zuzeneko organo arduraduna eta, horren ondorioz, prestakuntzarena ere bai. Bere eskumenen artean, besteak beste, enplegatuen prestakuntza-saioak sustatzea eta Prestakuntza Plana egitea daude.
- Giza Baliabideetako arduraduna. Bereziki prestakuntza kudeatzeaz eta antolatzeaz arduratuko da, eta honakoak egingo ditu: ikastaroak antolatu, eskabideak kudeatu, ikasgela eta ekipamendua hautatu, etab. :
 - Irakasleak hautatuko ditu, ordezkaritza sozialaren proposamenak zein diren jakin eta gero.
 - Enplegatuen artean beharrezkoak diren inkestak egingo ditu, eginbeharrak eta lehentasunak antzemateko eta ikastaroen asebetetze-maila zein den jakiteko.
 - Prestakuntza Planaren kudeaketari buruzko txostenak egingo ditu, egindako prestakuntza-saioak eta horien kostua zein izan den adieraziz.
- Prestakuntza Batzordea. Udal ordezkaritza eta ordezkaritza soziala duen organoa da. Prestakuntza Planean sartutako saioen azterketa, eztabaida, proposamena eta jarraipena egitea da bere eginkizun nagusia. Urtean gutxienez bi aldiz elkartuko da.

4. artikulua.- Prestakuntza Planean zabalkunde

Prestakuntza-eskaintza enplegatu guztiei ezagutzera emateko “*Langilearen ataria*” erabiliko da batez ere. Lanabes erabilgarria eta eroso da lanean ordenagailua erabiltzen duten enplegatu guztiei beharrezko informazio guztia eman ahal izateko.

Atari horren bidez ikusi ahalko dira Prestakuntza Plan osoa (onartua izan eta gero), prestakuntza-saioen aldi baterako planifikazioa eta saio horietako bakoitzari buruzko informazio zehatza. Informazio horren antolakuntzari eta azpiegiturari buruzko zehaztasunak izan ahala, handitzen joango da informazioa (edukiak, xede diren enplegatuak, irakasleak, data eta ordutegiak, non egingo den, aurretiko ezagutzei buruzko gomendioak, etab.).

Nolanahi ere, ekipamendu informatikoa asko erabiltzen ez duten enplegatuak informaziorik jaso gabe gera ez daitezten, euren lanean ordenagailurik erabiltzen ez duten enplegatuak dauden departamentuetako arduradunek “*Langilearen atarian*” dagoen informazio guztia jasoko dute paperean, eta dagokion informazio-tauletan jartzeaz arduratuko dira.

Zabalkunde-bide normalizatu horiez gain, errefortzu modura, Giza Baliabideetako Departamentutik proposamen zuzenak egin ahalko dira, barruko postaren bidez mezuak bidalita, etab.

5. artikulua.- Prestakuntza Planean sartutako saioak eskatzeko prozedura

Izena emateko modu erraz bat egongo da, eta, hala, abian jartzen den prestakuntza-saio bakoitzeko, pertsona batek departamentuko arduradunari barneko posta elektronikoko bat bidaliko dio prestakuntzari buruzko informazio guztiarekin, bere onespena eman diezaion. Arduradunak ahalik eta azkarren birbidaliko du mezua GGBBetako Departamentura, eskaera onartu den ala ez adierazita. Departamentu hori arduratuko da jasotako eskabide guztiak bildu eta sailkatzeaz.

Aipatu dugun prozedura gomendatu egiten dugu oso erraza eta eroso delako. Hala ere, interesdunak eskaera idatziz egin ahalko dio departamentuko arduradunari.

Departamentuko arduradunak ez badu eskaera onartzen, Giza Baliabideetako Departamentua derrigortuta dago interesdunari horren berri ematera, horretarako eskaera egiteko erabili duen bide berbera erabilia.

Prestakuntza Planeko saioetan parte hartzeko, interesdun bakoitzak bere eskaera bidaliko du, saio bakoitzean adierazitako epearen barruan. Horri buruz ezer adierazten ez bada, berriz, prestakuntza-saioa egingo den eguna baino gutxienez 15 egun lehenago (dagokion departamentuko arduradunak oso ondo justifikatutako salbuespenetan izan ezik).

Dena dela, artikulua honetan deskribatutako prozedura ez den beste bat ezarri ahalko du Prestakuntza Planak, batez ere, derrigorrezko prestakuntza kasuetarako.

6. artikulua.- Eskatzaileak onartzeko irizpideak

Eskaerak onartu edo ez erabakitzeke, kontuan izango da, lehenik eta behin, eskatzailearen departamentuko arduradunaren irizpidea. Arduradunari bidezkoa iruditzen ez bazaio prestakuntza-saioan parte hartzea, eta GGBBetako arduradunak, berriz, uste badu badagoela izaera orokorreko irizpide bat ez onartze hori berriro aztertzea eskatzen duena, harremanetan jarriko da arduradun horrekin irizpide aldaketa bat egon ote daitekeen baloratzeko.

Dagokion arduradunek onartutako eskaerarako eta prestakuntza-saio bakoitzerako, onartuen kopurua mugatzeko irizpideak jarriko dira, betiere eskaerek ikastaroaren ahalmena gainditzen badute. Hona hemen irizpide diskriminatzaileak lehenetsun-ordenaren arabera:

1. Harreman zuzena izatea eskatzailearen zereginekin eta bere lanposturako behar den birziklatze eta/edo hobekuntza profesionalarekin.
2. Urte berean eskatzaileak egin dituen prestakuntza-saioen kopurua.
3. Eskatzaileak oraingo ikastaroaren aurretik beste bat egin izana, eta honakoa haren jarraipena edo osagarria izatea.
4. Interesdunaren lan-lotura motaren egonkortasuna.
5. Eskaeren jasotze-ordena.

Aurreko urteetan egindako ikastaroetan ezingo da parte hartu, behar bezala justifikatutako arrazoirik ez badago eta, betiere, dagokion departamentuko arduradunak txostena egin eta gero.

7. artikulua.- Enplegatuari jakinaraztea ikastaro edo prestakuntza-saioan onartua izan dela

Posta elektronikoz jakinaraziko zaio. Ukapenak beti jakinaraziko zaizkie eskatzaileei, ukatze horretarako zein irizpide erabili den adierazita. Kasu guztietarako barneko posta elektronikoa erabiliko da, ordenagailurik erabiltzen ez duten enplegatuen kasuan izan ezik.

8. artikulua.- Udalarentzat interes berezia daukaten ikastaroetara joatea

Udaleko talde jakin batzuen birziklatze profesionala egiteko, berrantolaketa prozesuak garatzeko, berrikuntzak sartzeko... Udalak antolatzen dituen prestakuntza-saioek enplegatu talde zehatz eta espezifikoei eragiten badiete, Giza Baliabideetako Departamentuak prestakuntza-saioan parte har dezaten eskatu ahalko die enplegatu horiei, betiere parte ez hartzeko arrazoizko egoerarik ez badago.

Dena dela, enplegatu publikoen jokabideari buruzko printzipioez TREBEPean adierazitakoa kontuan izanda, enplegatuen batek prestakuntza eta kualifikazio profesionala eguneratuta eduki nahi ez badu inolako arrazoirik gabe, dagokion diziplina-neurriak aplikatu ahal izango dira.

9. artikulua.- Homologazioak, asistentzia-kontrola eta ikastaroen ebaluazioa

Prestakuntza Planean sartutako saio nagusiei balio kurrikularra ematearren, posible den kasuetan IVAPen homologazioa lortzeko saiakera egingo da, eta parte-hartzaileei diplomak edo egiaztagirak emango zaizkie.

Horretarako, prestakuntza-saio guztietan asistentzia-kontrolak egingo dira, eta parte-hartzaile bakoitzak dagokion asistentzia-orria sinatu beharko du. Justifikatu gabe etorri ez izanak honako ondorioak izango ditu:

- Diploma jasotzeko eskubidea galduko da, ikastaroak irauten duen denboraren %20tik gora huts eginez gero.
- Ikastaro osoa ordaindu behar izatea (matrikula, bidaiako gastuak, kilometrajea, etab.) eta/edo matrikula ordaintzeko diru-laguntza galtzea, halakorik balego.
- Ikasturte horretako eta hurrengoko prestakuntza-saioetan izena emateko eskubidea galtzea, eskatu eta emandako ikastaro batera arrazoirik gabe joan gabe gelditu bada eta hutsune hori betetzerik izan ez bada.

Prestakuntza-saioen emaitzak aztertu eta Prestakuntza Planaren hobekuntzarako lanabes modura erabiltzeko, azkenengo prestakuntza-saioan Ikastaroaren Ebaluazio Orria banatuko zaie parte-hartzaileei. Bertan ikastaroaren kalitatea eta

interesa neurtzeko beharrezkoak diren alderdien balorazioa jasoko da (irakasleak, edukiak, ordutegiak, ikasgela eta laguntzeko bitartekoak, esperotakoaren betetze-maila, sakontzeko beharra, etab.).

GGBBetako arduradunak txosten bat egingo du, eta bertan, balorazioaren emaitzak eta eskaintako ikastaroek izandako eskaera-kopurua adieraziko dira. Txosten hori Prestakuntza Batzordeari emango zaio azter dezan, batzorde hori baita Planaren jarraipena egiteko eta hurrengo ekitaldietako planak prestatzeko eskumena duena.

10. artikulua.- Enplegatuek beren artean ezagutza trukatzeko saioak prestatzea

Antolakuntzan aldaketa kulturala ahalbidetzen duen elementu estrategiko modura ikusten bada prestakuntza, pertsonak behar bezala eta modu eraginkorrean prestatzeko neurriak jarri behar dira, baina, baita ere, enplegatuen artean ezagutzaren trukaketa errazteko neurriak, enplegatu horiek betetzen dituzten funtzioen heterogeneotasunaren ondorio modura. Beraz, aurreikusi egin behar da Udaleko enplegatuek prestakuntza-saioak eman ahal dizkietela euren lankideei, betiere ikasgaiak emateko behar besteko kualifikazioa eta eskarmentua badaukate.

II. TITULUA PRESTAKUNTZA INDIBIDUALIZATUA

11. artikulua.- Prestakuntza indibidualizatuaren helburuak

Udalak urtero antolatzen duen Prestakuntza Plan orokorra baino haratago doazen hobekuntza eta birziklapena dira prestakuntza indibidualizatuaren helburuak. Antolakuntza eta diru kontuak direla-medio, batez ere karrerako funtzionarioei, praktiketako funtzionarioei eta urtebetetik gorako izendapena daukaten enplegatuei zuzenduta egoten da prestakuntza indibidualizatua.

Beharrezkotzat jotzen den hobekuntza eta birziklatze profesionala erakundeko beste enplegatu batzuen lanerako mesedegarria izan badaiteke, ahal den neurrian, ahalegina egingo da dagokion saioa Prestakuntza Planean sartzeko. Prestakuntza hori modu indibidualizatuan emango da aipatutako aukera hori ezinezkoa gertatzen bada.

12. artikulua.- Eremu subjektiboa: prestakuntza-saio indibidualizatueta parte har dezaketen udal enplegatuek

Aurreko artikuluan adierazitakoari utzi gabe, prestakuntza-saio indibidualizatueta zein pertsonak parte hartuko duen erabakitzeke, Prestakuntza Planerako erregelamendu honetako 2. artikuluan adierazitakoa hartuko da kontuan.

13. artikulua.- Prestakuntza indibidualizatua eskatzeko prozedura (sinplifikazioa)

Eskaera egiteko berariaz prestatutako inprimaki normalizatua bete beharko da. Eskatutako ikastaro edo jardunaldiaren ezaugarriei buruzko dokumentazioa edo informazioa erantsi beharko zaio eskaera horri.

Eskaera hori departamentuko arduradunari emango zaio, bere onespena eman dezan, eta handik Giza Baliabideetako Departamentura eta Kontu-hartzaitzara bidaliko da. Eskaera onartu ez bada jakinarazi egingo zaio enplegatuari.

Prestakuntza-ikastaroetara joateko eskabideak ikastaroa izango den egunean baino lehenago eta behar besteko denborarekin (normalean 15 egun) bidaliko dira. Eskabideetan honakoak azaldu beharko dira:

- Ikastaroaren edukia, eta edukiak lanpostuarekin daukan lotura.
- Ikastaroaren iraupenaren eta prezioaren justifikazioa, eta ikastaroa zein lekutan izango den.
- Gastuari buruzko xehetasunak: kilometrajea, matrikula, etab.
- Departamentuko zinegotzigoaren eta Giza Baliabideetako zinegotzigoaren baimena eta sinadura ikastaroa egiteko.

Irizpide orokor modura, izaera publikoko zentro, erakunde edo entitateek emandako ikastaroek izango dute lehentasuna, eta baita ere, Zarautzen bertan edo Zarautzik gertu egiten direnek.

Aurkeztutako eskaera azkenean ukatu egiten bada, interesdunak kexa bat aurkeztu ahal du Prestakuntza Batzordearen aurrean, eta honek ahal bezain pronto informatuko du gaiari buruz.

Ikastaroetara doazenez baimena jasotzen badute prestakuntza-saio indibidualizatu batera joateko, saio horretan eman dieten dokumentazioa aurkeztu beharko dute (bertaratzeari edo aprobetxamenduari buruzko agiria edo kopia), Giza Baliabideetako Departamentuan horren inguruko dokumentazioa izan dezaten.

Dena den, aurreko paragrafoetan aipatu den inprimaki normalizatuaren orde, baimen horiek izapidetzeko aukera ematen duen aplikazio informatikoa ere erabili ahal da, eta baimenatarako erregimena artikuluan honetan ezarritakoaren antzekoa izango da.

III. TITULUA

PRESTAKUNTZA PLANAREN ETA PRESTAKUNTZA INDIBIDUALIZATUAREN ALDERDI KOMUNAK

14. artikulua.- Ordutegia konpentsatzeko irizpideak

Enpleguak prestakuntza-saioetara joaten direnean, ordutegiaren aldetik irizpide berdinak aplikatuko zaizkie lanaldi jarraitua, lanaldi zatitua eta txandakakoa dutenei.

Hauek dira irizpideak:

Lehena.- Enpleguak ikastaroko orduetan ez du bere lanlekura joan beharrik izango, eta horretarako, ikastaroak irauten duen denbora eta joan-etorriak egiteko behar dena hartuko dira kontuan. Ikastaroa egingo den tokiraino joateko behar den denboraren inguruan desadostasunak egonez gero, GGBBetako Departamentuak erabakitakoa hartuko da kontuan.

Prestakuntzak irauten duen denbora lan-denboratzat hartuko da, nahiz eta ikastaroaren ordutegia guztiz bat etorri ez enpleguaren lan-ordutegiarekin.

Dena dela, ikastaroa egunero 5 ordukoa edo gehiagokoa bada eta Zarautzik kanpo ematen bada, ikastaroak lanegunekin kointziditzen duenean enpleguak ez du lanera joan beharrik izango, eta denbora hori lan eginda bezala kontatuko da.

Bigarrena.- Ikastaroak lanaldiarekin kointziditzen duen orduetan enpleguak ez du lanera joan beharrik izango. Gainera, ikastaroa laneko ordutegitik kanpo ematen denean, ikastaroak irauten duen denbora eta joan-etorrietarako behar izan dena kendu ahal izango zaizkio egun horretako lanaldiari. Departamentuko arduradunarekin adostu beharko da hemen aurreikusitako lanaldi-murrizketa hori zein ordutan aplikatuko den, eta orokorrean, ikastaroaren egun berean izan beharko da.

Aurrekoa gorabehera, lanaldi zatituan, hau da, goizez eta arratsaldean egiten diren ikastaroen kasuan, prestakuntzagatik pilatutako orduak ohiko lanaldiarenak baino gehiago izan edo ez izan (prestakuntza gutxienez 5 ordukoa), ikastaroetara joaten direnek egun horretan ez dute lanera joan beharrik izango.

Prestakuntzarako orduak enpleguaren derrigorrezko lanaldikoak edo lanaldi teorikokoak baino gehiago badira, Prestakuntza Batzordeak aztertu egingo du ordu horiek konpentsatuko diren ala ez. Nolanahi ere, lanaldi murriztua duten pertsonen konpentsatu egingo zaie (ordubete ordu bakoitzeko), prestakuntza bere ohiko lanaldia baino handiago den kasuetan.

Hirugarrena.- Ikastaroek edo jardunaldiek ez badute kointziditzen lanegunekin edo laneko txandekin, ikastaroak irauten duen ordu bakoitzeko ordubete emango da, eta konpentsazio hori egiteko joan-etorrietarako denbora ere kontuan hartuko da. Txandak lan egiten dutenen kasuan, ikastaroa eman zeneko egun edo txanda berdintsuetan egingo da konpentsazioa, hau da, ikastaroa egunez eman bada, orokorrean, konpentsazioa eguneko lanegunetan egin beharko da pertsonaren egutegiaren arabera. Dena den, enpleguaren eta arduradun zuzenaren artean erabakiko dute konpentsazio hori zein egunetan egin. Era berean, konpentsazioa prestakuntza bukatu eta hurrengo hiru hilabeteetan egin beharko da derrigorrez. Salbuespena izango da, zerbitzuaren beharrak direla-eta, enpleguaren arduradun zuzenak txosten bat egitea konpentsazioa geroago egin daitekeela justifikatzen duena.

Laugarrena.- Enpleguak etxetik kanpo lo egin beharra badauka, Zarautzik kanpo zenbait egunetako ikastaro edo jardunaldietara joango delako, egun horiei dagozkien lanaldiak ez ditu bete beharko. Kasu honetan, enpleguaren ohiko lanaldiko orduetatik gora egindako prestakuntza-orduak konpentsatzeko eskubidea sortuko da (ordubete ordu bakoitzeko).

Ikastaroa bukatu eta hurrengo egunean, goizean, etxera itzuli beharra gertatzen bazaio eta egun hori laneguna bada, ahal duen bezain pronto joan beharko da lanera; itzulerako bidaiari ematen dituen orduetan lanera joatetik salbuespena egongo da.

Desplazamenduetan, lanlekutik (Zarautz) neurtuko dira denbora eta distantzia, egin behar den benetako distantzia txikiagoa ez bada behintzat. Distantzien kalkulua Googleren APIren bidez egingo da.

15. artikulua.- Prestakuntza-saioetara joatearekin lotutako beste baldintza eta arau orokor batzuk

Adierazitako baldintzetan ikastaroetara joateagatik bere lanaldia murrizten duten pertsonen hala adierazita utzi beharko dute "Langilearen atarian", ahalbait azkarren; nolahi ere, irteeran fitxatu egin beharko dute, eta baita lanera itzultzerakoan ere, hala egitea posible den kasuetan. Prestakuntza Planaren barruan sartutako saioak udaletxeke bulegoetan egin direnean ez da fitxatu beharrik izango.

Ikastaroak ematen diren tokirainoko desplazamenduak eta dietak (beharra sortzen bada ikastaroak goizez eta arratsaldean direlako eta enpleguaren etxetik urruti) ekonomikoki konpentsatuko dira otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuak, zerbitzuen

ondoriozko kalteordainei buruzkoak, ezarritako baldintzen arabera, betiere kontuan izanda geroagoko beste dekretu batzuek dekretu horretan sartu dituzten aldaketak.

Oro har eta posible den kasu guztietan, desplazamenduetan, ostatu hartzerakoan eta abar, kontuan izan beharko da ekonomia printzipioa, eta ikastarora pertsona bat baino gehiago doazenean kotxe bakarrean egin beharko da desplazamendua.

Prestakuntza-ikastaro batera joan nahi duen pertsona aldi baterako ezintasun egoeran badago, horrelako egoerarako eskumena duen medikuak egokitasunari eta bateraezintasunari buruz egindako txostenean diotenaren arabera, enplegatua ikastarora joan egingo da edo ez. Prestakuntza-orduak ezingo dira konpentsatzeko pilatu, dena delakoa izanda ere ikastaroaren iraupena.

Prestakuntza-ikastaro batera joan nahi duen pertsona bat ordaindu gabeko baimen batean badago, ikastarora joateko baimena eman ahalko zaio, betiere erakundearen bertan zerbitzu aktiboko egoera administratiboan badago.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehena.- Erregelamendu honetan arautu gabeko gaiak direnean, edo gai hori interpretatzerakoan zalantzak baldin badaude, Giza Baliabideetako zinegotzigoak erabakiko du, hala badagokio, Prestakuntza Batzordeari kontsultatu eta gero.

7.- ZARAUZKO SANZ ENEA UDAL LIBURUTEGIAREN ERREGELAMENDUA ONARTZEA. HASIERAKO ONESPENA

2016 KKKK 0008 espedientea

Zarauzko Sanz Enea Udal Liburutegia ezagutzaren eta kulturaren sorkuntza eta zabalkundearekin konprometituta dagoen zerbitzu publiko bat da. Zarauzko Udalaren zeregina da instalazio horren funtzionamendua arautzea. Hortaz, Udala arduratuko da liburutegia erabilera-egoera onean edukitzeaz, jarraibide orokorren arabera eta erabilera-araudi honetatik eratorritakoen arabera.

Herritarren arloko informazio-batzordearen irizpena ikusi ondoren, Udalbatzarrak, aho batez,

ERABAKI DU

Lehenengoa.- Hasierako onespena ematea ZARAUZKO SANZ ENEA UDAL LIBURUTEGIAREN ERREGELAMENDUARI, Herritarren arloko informazio-batzordeak onartatzen emandako testuaren arabera.

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean jartzea, 30 eguneko epean, interesdunek erreklamazio eta iradokizunak aurkeztu ahal izan ditzaten. Jendaurreko informazio-izapidea jakitera emango da udaletxeko iragarki-taulan zein web-orrian jarriko den eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean zein probintzian gehien zabaltzen diren egunkarietako batean argitaratuko den iragarkiaren bidez.

Hirugarrena.- Erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu ezean, ZARAUZKO SANZ ENEA UDAL LIBURUTEGIAREN ERREGELAMENDUA behin betiko onartutzat emango da, berriazko erabakirik hartu behar izan gabe. Dena den, indarrean sartzeko, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean testu osoa argitaratu beharko da.

ZARAUZKO SANZ ENEA UDAL LIBURUTEGIAREN ERREGELAMENDUA

I kapitulua Xedapen orokorrak

1 artikulua

Zarauzko Sanz Enea Udal Liburutegia ezagutzaren eta kulturaren sorkuntza eta zabalkundearekin konprometituta dagoen zerbitzu publiko bat da. Eskaintzen dituen informazioko baliabide eta zerbitzuen bidez, bikaintasun kultureko testuinguru batean eta bere plangintza eta diseinua egitean interes-talde guztiak aintzat hartuta, Zarauzko kultur eskaintzaren efikazia eta efizientzia hobetzen ditu, zerbitzatzaren duen gizartearekiko lankidetzaren giroan.

Zarauzko Udalaren zeregina da instalazio horren funtzionamendua arautzea. Hortaz, Udala arduratuko da liburutegia erabilera-egoera onean edukitzeaz, jarraibide orokorren arabera eta erabilera-araudi honetatik eratorritakoen arabera. Udala arduratuko da, baita, instalazioen funtzionamenduz, hobekuntzaz, antolaketaz eta administrazioaz, Liburutegiko zerbitzu teknikoaren bidez.

II kapitulua Erabilera-arau orokorrak

2 artikulua. Udal liburutegira sartzea

Udal liburutegiko sarrera irekia eta doakoa da, nahiz eta zerbitzu batzuk erabiltzeko bazkide-txartela beharrezkoa den. Adinaren arabera mugatuko da gune batzuetako sarbidea. Seguritasun kontuak direla-eta, errespetatu egingo da Liburutegiko gune bakoitzean jarritako gehienezko edukiera.

Liburutegiko egutegia eta ordutegia Udalak urtero onartzen dituenak izango dira, eta jendurrean jarrita egongo dira. Liburutegia itxi baino hamar minutu lehenago bukatuko da mailegu-ordutegia.

3 artikulua. Bazkide-txartela

- Liburutegiak bazkide-txartela emango dio hala eskatzen duen orori. Eskaera bete besterik ez da egin beharko horretarako. 14 urtetik beherako kasuan, gurasoek edo tutoreek sinatu beharko dute eskaeraren inprimakia. Txartelak aukera ematen du Euskadiko Liburutegien Sare Nazionalan dauden udal liburutegi guztietako mailegu-zerbitzuan sartzeko.
- Galdutako edo hondatutako txartela berritzeko, indarrean dauden ordenantza fiskaletan jarritako prezioa ordainduko da.
- Erabiltzailearen helbidea, telefonoa, etab. aldatzen bada, lehenbailehen jakinarazi beharko da.
- Datuen babeserako araudiaren arabera tratatuko dira emandako datu pertsonalak.

4 artikulua. Erabiltzaileen eskubide eta betebeharrak

Erabiltzaileek eskubidea izango dute:

- Liburutegira libreki eta doan sartzeko (adinaren arabera eta liburutegiko zerbitzu bakoitzaren baldintza zehatzen arabera).
- Liburutegiko langileen aldetik bereizkeriarik egin gabe hartuak izateko eta arreta on bat jasotzeko.
- Bilduma, baliabide eta zerbitzuen informazioa jasotzeko.
- Iradokizunak, proposamenak eta erreklamazioak egiteko. Horiek aztertu, erantzun eta, kasu batzuetan, aplikatu egingo dira, aurrekontu-baliabideak kontuan hartuta.
- Informazio-baliabideak lokalizatu eta eskatzeko, inolaz ere zentsura ideologiko, politiko edo erlijiosorik egin gabe.
- Datu pertsonalen konfidentziasuna eta pribatasuna edukitzea, Liburutegiak ematen dituen material eta zerbitzuak direla-eta.

Erabiltzaileek betebeharrak izango dituzte:

- Instalazioaren eta emandako zerbitzuen erabilera-baldintzak errespetatzea.
- Behar bezala portatu eta gainerako erabiltzaileekiko errespetuzko jarrera edukitzea, adierazpen zatatsurik egin gabe.
- Ez erretzea, jatea edo edatea, eta animaliekin, bizikletekin, patinekin edo antzekoekin ez sartzea.
- Telefono mugikorretako seinale akustikoak itzalita edukitzea.
- Bazkide-txartelaz eta haren erabileraz arduratzea.

- Jabetza intelektualaren arloan indarrean dagoen legedia errespetatzea, Liburutegiko funtsak eta zerbitzuak erabiltzean.
- Maileguen epeak errespetatzea.
- 6 urtetik beherakoek heldu batekin egon behar dute uneoro, Liburutegiak antolatzen dituen jarduera berezietan eta hala aholkatzen denetan izan ezik.
- Material bibliografikoa ez azpimarratzea, ez idaztea, eta ez moztea.

III kapitulua Zerbitzuak

5 artikulua. Irakurketa-zerbitzua

Irakurketa-gelak publikoarentzat irekita daude, eta honela banatzen dira:

- Txiki-txoko espazioa: 6 urtetik beherakoentzat. Beti heldu batekin egon behar dute.
- Haurren espazioa: 6 eta 14 urte arteko adingabeentzat.
- Helduen espazioa: 14 urtetik gorakoentzat.

Erabiltzaileek ezingo dituzte eurei ez dagozkien espazioak erabili, Liburutegiko langileen berariazko baimenik eduki ezean.

Liburutegiko funtsak kontsultatu behar dituzten pertsonen lehentasuna izango dute tokia hartzeko, norbere dokumentuekin ikasi behar dutenen kaltetan. Gainera, plazak ezingo dira inolaz ere erreserbatu.

6 artikulua. Mailegu-zerbitzua

Hauek dira zerbitzuaren baldintza orokorrak:

- Gehienez 9 dokumentu mailegatu ahalko dira aldi berean:
 - 3 liburu (21 mailegu-egun)
 - 3 ikus-entzunezko (7 mailegu-egun)
 - Aldizkako 3 argitalpen (21 mailegu-egun)
- Mailegu-epeak luzatu ahalko dira, baldin eta beste pertsona batek erreserbatu ez baditu.
- Mailegu zerbitzutik kanpo gelditzen dira hiztegiak, entziklopediak, eguneko prentsa eta hilabete horretako aldizkako argitalpenak.
- Gainera beste 5 liburu eta 5 ikus-entzunezko mailegatu ahalko dira Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko gainerako liburutegietan.
- Liburutegitik tramitatuko dira liburutegi arteko mailegu-eskaerak. Eskaera etxetik egiten bada, dokumentuaren jabe den liburutegian pertsonalki jaso beharko da eskatutakoa.
- Liburutegian eskuragarri dauden dokumentuen 2 mailegu-eskaera egin daitezke gehienez.
- Mailegatuta dauden dokumentuak erreserbatu ahalko dira (2 erreserba gehienez). Eskuragarri daudenean, eskatu dituenari abisatuko zaio, eta hark bi egun izango ditu jasotzeko. Epe hori igaro ondoren, erreserba desaktibatuko egingo da.
- Edozein dokumentu galdu edo hondatuz gero, berria ekarri beharko da.

7 artikulua. Liburutegi elektronikoa eta Internet-zerbitzua

Udal Liburutegiak Interneten sarbidea duten ordenagailuak ditu, eta, gainera, WIFI konexioa ere badauka euren ordenagailu eramangarriak erabili nahi dituztenentzat.

Arau hauen arabera erabiliko da:

- 60 minutuz erabili ahalko dute zerbitzu hori bai helduek bai adingabeek. Iraupena luzatu ahalko da ez badago zerbitzua eskatzen ari den beste pertsonarik.
- 10 urtetik beherako adingabeek heldu batekin erabiliko dute zerbitzua. 10/14 urte arteko bazkideek, berriz, gurasoen edo tutorearen baimen idatzia beharko dute Interneten nabigatzeko.
- Liburutegia ez da erabiltzaileak eskuratzen duen informazioaren erantzule izango.
- Ordenantza fiskaletan jarritako prezioaren arabera kobratuko dira egindako inprimatzeak.

8 artikulua. Erreprografia-zerbitzua

- Liburutegiak fotokopiagailu autozerbitzu bat dauka.
- Une bakoitzean eta kasu bakoitzean indarrean dauden legezko arauen mende egongo da edozein elementuren erreproduktzioa. Liburutegiak ez du inolako ardurarik izango kopiak gaizki erabiltzeagatik erabiltzaileak sartzen

- diren prozesuetan.
- Liburutegiak hainbat arrazoiengatik babestu nahi dituen elementuak ezingo dira erreproduzitu, aldez aurretik baimen bat eduki gabe.
 - Erreprografia zerbitzuaren prezioak ordenantza fiskaletan jarritakoak izango dira.

IV kapitulua **Zigor-prozedura**

9 artikulua. Arau-haustek

Erregelamendu honetan xedatutakoaren aurka doazen portaerak oso larriak, larriak edo arinak izan daitezke. Ondorengo hauek erregelamendu honetan xedatutakoaren aurkako portaerak dira, eta, ondorioz, zigortu egingo dira:

- Oso larriak:
 - a) Liburutegiko edozein ondasun lapurtu, puskatu edo hondatzea, edo horretan saiatzea.
 - b) Indarkeria ekintza larriak egitea (ahozkoa edo fisikoa) erabiltzaileen edo Liburutegiko langileen aurka.
 - c) Hiru akats larri egitea.
- Larriak:
 - a) Maileguan hartutako materiala itzultzen atzeratzea.
 - b) Liburutegiko erabilera- eta zerbitzu-arauak ez betetzea.
 - c) Hiru akats arin egitea.

- Arinak:

Liburutegiaren edo edozein erabiltzailearen ordena asaldatuko duen edozein portaera.

10 artikulua. Zigorrak

Aurreko artikuluan deskribatutako portaerak honela zigortuko dira:

- Arau-hauste oso larriak egiten direnean, liburutegiko erabiltzaile-izaera galduko da, hiru hilabetetik urtebetera, eta hondatutako materiala jarri beharko da, halakorik balego.
- Arau-hauste larriak: mailegatutakoa itzultzean atzeratzen bada, mailegatzeko eskubidea galduko du egun batez, atzeratutako egun natural bakoitzeko. Liburutegiko erabilera- eta zerbitzu-arauak betetzen ez badira eta arau-hauste arinak errepikatzen badira, bazkide-izaera galduko da zazpi egunetik hogeita hamar egunera.
- Arau-hauste arinak: ohartarazpena, edo bazkide-izaera galtzea gehienez zazpi egunez.

Ezingo da arau-hauste larriengatik edo oso larriengatik zigorrik jarri, ez bada aurretik espediente bat tramitatzen. Aldiz, ez da beharrezkoa izango espedientea tramitatzea arau-hauste arinen zigorrek jartzeko. Dena den, egun batetik gorako zigorretan entzunaldi tramitea emango zaio arduradunari.

Nolanahi ere, arau-hauste larri eta arinen zigorrek jartzeko, ezinbestekoa izango da aurretik interesdunari ahoz ohartaraztea. Hori Liburutegiko langileek egin dezakete.

Zigorrek zehazteko, kontuan izango da erruduntasuna eta arau-haustea gertatu denean egon diren gainerako zirkunstantziak.

Xedapen indargabetzailea

Indarrrik gabe geratzen da gaiaren inguruan indarrean dagoen beste edozein udal araudi edo xedapen, maila berekoa edo txikiagokoa denean eta Erregelamendu honetan xedatutakoaren aurka doanean.

Azken xedapena

7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 70.2 artikuluan xedatutakoaren arabera sartuko da indarrean Erregelamendu hau, eta indarrean jarraituko du Udalak aldatzea edo indargabetzea erabakitzen duen arte.

8.- ELKARTEEN UDAL ERREGISTROA. SORRERA ETA ERREGELAMENDU ARAUTZAILEAREN HASIERAKO ONESPENA

2016 IIII 0009 espedientea

Zarauzko Udalak hainbat laguntza mota eman izan dizkie udalerrian lan egiten duten irabazi-asmorik gabeko elkarteei. Elkarteek, gainera, Udalarekin batera lan egin dute udal jarduera batzuetan.

Elkarte horiekin izandako harremani esker, elkarteek, kasu batzuetan, merezimenduak egin dituzte udal interesekotzat hartuak izateko. Hala ere, ez dago izaera horren aitortza formalik, ezta elkarte horietako bakoitzaren ezagutza frogagarrikerik ere.

Bestalde, azkenaldian onartutako hainbat foru xedapenek adierazten dute zenbait onura fiskal eta zergazkoak aitortzeko beharrezkoa dela erakunde jakin batek alde aurretik Udal Intereseko Elkartearen berariazko adierazpena edukitzea.

Horiek horrela, Elkartearen Udal Erregistroa sortzen da. Herrian dauden elkartearen adierazpena egiteko eta informazioa emateko tresna izango da erregistro hori.

Antolakuntzaren arloko informazio-batzordearen irizpena ikusi ondoren, Udalbatzarrak, aho batez,

ERABAKI DU

Lehenengoa.- ELKARTEEN UDAL ERREGISTROA sortzea, 2568/1986 Errege Dekretuak, azaroaren 28koak, Toki-erakundearen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duenak, 232 artikuluan eta hurrengoetan aurreikusten dutenaren arabera.

Bigarrena.- Hasierako onespena ematea ELKARTEEN UDAL ERREGISTROAREN ERREGELAMENDU ARAUTZAILEARI, Antolakuntza arloko informazio-batzordeak ontzat emandako testuaren arabera.

Hirugarrena.- Espedientea jendaurrean jartzea, 30 eguneko epean, interesdunek erreklamazio eta iradokizunak aurkeztu ahal izan ditzaten. Jendaurreko informazio-izapidea jakitera emango da udaletxeko iragarki-taulan zein web-orrian jarriko den eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean zein probintzian gehien zabaltzen diren egunkarietako batean argitaratuko den iragarkiaren bidez.

Laugarrena.- Erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu ezean, ELKARTEEN UDAL ERREGISTROAREN ERREGELAMENDU ARAUTZAILEA behin betiko onartutzat emango da, berariazko erabakirik hartu behar izan gabe. Dena den, indarrean sartzeko, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean testu osoa argitaratu beharko da.

ELKARTEEN UDAL ERREGISTROAREN ERREGELAMENDU ARAUTZAILEA

ZIOEN AZALPENEA

Zarauzko Udalak hainbat laguntza mota eman izan dizkie udalerrian lan egiten duten irabazi-asmorik gabeko elkartei. Elkarteek, gainera, Udalarekin batera lan egin dute udal jarduera batzuetan.

Elkarte horiekin izandako harremanei esker, elkarteek, kasu batzuetan, merezimenduak egin dituzte udal interesekotzat hartuak izateko. Hala ere, ez dago izaera horren aitortza formalik, ezta elkarte horietako bakoitzaren ezagutza frogagarrikerik ere.

Bestalde, azkenaldian onartutako hainbat foru xedapenek adierazten dute zenbait onura fiskal eta zergazkoak aitortzeko beharrezkoa dela erakundeak aldez aurretik Udal Intereseko Elkartearen berariazko adierazpena edukitzea.

Horiek horrela, Elkarte Udal Erregistroa sortu da, herrian dauden elkartearen adierazpena egiteko eta informazioa emateko tresna gisa.

Lehenengoa

Elkarte Udal Erregistroa sortzen da. Hor jasoko dira hirugarren puntuaz azaltzen diren datuak.

Bigarrena

Irabazi-asmorik gabeko elkarteek eskatu ahalko dute erregistroan inskribatzea, baldin behar bezala inskribatuta badaude Eusko Jaurlaritzaren Justizia Saileko Elkarte Udal Erregistroan eta euren jarduerak udalerrian egiten badituzte.

Hirugarrena

Interesa duten elkarteek Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztuko dute inskripzioaren eskaera, dokumentazio honekin batera:

3.1. Elkarte Udal Erregistroan inskribatzeko:

- IFKren fotokopia.
- Elkartearen estatutuen fotokopia.
- Eusko Jaurlaritzaren Elkarte Udal Erregistroko inskripzioaren frogagiri eguneratua.
- Zuzendaritzako pertsonen izen osoak.
- Elkartearen bazkide kopurua.
- Elkartearen urteko aurrekontua.
- Banketxeko kontu-zenbakia (elkartearena).
- Udalarekin harremana zein hizkuntzatan izan nahi duen.

3.2. Gainera udal intereseko elkartearen adierazpena eskatzen bada:

- Zerbitzu eta jardueren memoria (azken hiru urteetako), udal interesekoa dela frogatzen duena.
- Jarduera ez dela era profesionalean eta jarraituan egiten frogatzeko memoria.
- Zinpeko aitortza, egiaztatzen duena, elkartearen ez dela egiten sexuaren, ideologiaren, jaioterriaren, nazionalitatearen edo sexu-joeraren ziozko diskriminaziorik, ez aukeratzeko prozesuan ezta lan-jardunean ere.
- Delitu sexualen ziurtagiria, lege hauetan aurreikusitakoa, baldin elkartearen behartuta badago: 1/1996 Lege Organikoa, Adingabeen Babes Juridikoari buruzkoa (26/2015 Legeak aldatutakoa) eta 45/2015 Legea, boluntariotzari buruzkoa.
- Hirugarren Sektore Sozialeko Elkarte Udal Erregistroan izena emanda dagoela frogatzeko agiria, maiatzaren 12ko 6/2016 Legea, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzkoa aplikatu beharreko kasuetan.

Laugarrena

4.1. Inskripzioa bakarrik egin nahi bada:

Datu guztiak frogatu ondoren, dagokion departamentuak Udaleko Idazkaritzara bidaliko du espedientea.

4.2. Gainera udal intereseko elkartearen adierazpena eskatzen bada:

Aurkeztutako memorian deskribatutako jardueren izaerari eta emaitzei buruzko txostena egingo du dagokion departamentuak. Ondoren udal intereseko elkarte gisa inskribatzeko edo ez inskribatzeko proposamena egingo da, eta Kontu-hartzailetza departamentura bidaliko da espedientea.

Dagokion departamentuak Udaleko Idazkaritzara bidaliko du espedientea, dagokion informazio-batzordearen aldeko irizpenarekin batera.

Bosgarrena

Alkatetzaren dekretu bidez erabakiko da Elkarte Udal Erregistroko inskripzioa (baina horrek ez dakar berekin Udal Intereseko Elkarte adierazpena).

Udal intereseko elkartearen adierazpena, berriz, Udalbatzarrak onartuko du.

Seigarrena

Idazkaritza Nagusia egongo da Elkarte Udal Erregistroaren kargu, eta bere departamentua arduratuko da inskripzio- eskaerez.

Zazpigarrena

Erregistroko inskripzioa ezeztatu ahalko da, pentsatzen bada jarduerok Udalarekiko lankidetzaren aurkakoak direla. Ezeztatze hori arrazoitu egingo da, eta entzunaldiaren tramitea emango da horretarako irekitako espedientean.

Zortzigarrena

Iskribatutako elkarte arduratuko da inskripzioaren elementuetan gertatutako edozein aldaketa jakinarazteaz.

Bederatzigarrena

Udal intereseko adierazpena daukaten elkarteek urriaren 28ko 6/1997 Foru Arauan jasotako onura fiskalak eta beste edozein onura fiskal izango dituzte, baldin araudi horretako betebeharrak betetzen badituzte (6/1997 Foru Arauak 1/1993 Foru Dekretu Arauemailea, apirilaren 20koa, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren Testu Bategina onartzen duena aldatu zuen).

Era berean, Udalak dituen eta zergazkoak ez diren beste onura batzuk ere izango dituzte elkarteek.

Azken Xedapena

Sortutako Erregistroak honako hauetan aitortutako araubide eta helburuak izango ditu, harik eta Udal Erregelamendu Organikoan edo, halakorik balego, Elkarte Erregelamenduan arautzen ez den bitartean: 2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki-erakunde Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duena (232, 233, 234, 235 eta 236 artikulua).

9.- 18. EREMUKO -ASTI KIROLGUNEA- AISIALDI GUNEAREN HIRI-BERRIKUNTZAKO PLAN BEREZIA. BEHIN BETIKO ONESPENA

2016 H 700 0009 espedientea

Aztergai honen akordio-zirriborroa irakurri eta gero, proposamena bozkatu dute. Hona hemen emaitza:

Aldeko botoak:	11	(9 EAJ-PNV, 2 PSE-EE)
Aurkako botoak:	2	(2 Irabazi Zarautz)
Abstentzioak:	7	(7 EH Bildu)

Horrenbestez, adierazitako gehiengoaz, Udalbatzarrak erabaki hau hartu du:

“2016ko uztailaren 26an egindako bilkuran, Zarauzko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki zuen hasierako onespena ematea 18. eremuko – ASTI KIROLGUNEA – aisialdi gunearen hiri-berrikuntzako plan bereziari. Zarauzko Udalak berak abiarazi zuen espedientea.

Espedientea jendaurrean egon zen epean alegazio bat aurkeztu zen. Hirigintza eta Ingurumeneko Departamentuak horri buruzko txostena egin zuen.

Lurraldeko informazio-batzordeak espedientea eztabaidatu zuen, eta alegazioa zati batean onartzea proposatu zuen.

Hirigintza eta Ingurumen Departamentuak dokumentuaren testu bategina idatzi zuen. Hor sartu da alegazioa zati batean onartzeko proposamenak eragindako aldaketa.

Espedientea aztertu eta eztabaidatu ondoren, 11 zinegotziren aldeko botoarekin eta, beraz, legezko gehiengo osoaren “quorum”arekin, Udalbatzarrak

ERABAKI DU

Lehenengoa.- Txintxilik II Zarauzko Udalaren sozietate emakiduna SL sozietatearen izenean, Olaya Landa andreak aurkeztu zuen alegazioa zati batean onartzea. Horren ondorioz, aldatu egin da ordenantzeta 6 artikulua “a” ataleko testua, ondorengo zehaztapenak jasotzeko:

- Gehienezko eraikigarritasun fisikoa: 330 m², kanpoko terrazakoak sartuta, estali egiten bada.
- Gehienezko okupazioa: 330 m². Antolamendu xehatuko planoan finkatu dira gehienezko lerrokadurak.

Bigarrena.- Behin betiko onespena ematea 18. eremuko – ASTI KIROLGUNEA – aisialdi gunearen hiri-berrikuntzako plan bereziari. Zarauzko Udalak abiarazi zuen espedientea.

Onartutako dokumentua 2016ko urrikoa da, Hirigintza eta Ingurumeneko Departamentuak idatzitakoa.

Eraikuntza lizentzia lortu aurretik, justifikatu egin beharko da betetzen direla zaratari buruzko udal ordenantza eta Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko araudia.

Hirugarrena.- Onartutako dokumentua Foru Aldundiaren hirigintzako plangintzaren erregistro administratibora bidaltzea.

Horren ondoren, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira behin betiko akordioaren testu osoa eta hirigintzako ordenantzak. Halaber, behin betiko onespeneren akordioa lurralde historikoan gehien zabaltzen den egunkarian argitaratuko da.”

10.- HIRI ANTOLAMENDUAREN PLAN OROKORRAREN ALDAKETA, TALAIMENDI EREMUKO 19-2 AREAKO –OD SANTAITURRIETA– ANTOLAMENDU XEHATUAREN ZEHAZTAPENEI DAGOKIENA. HASIERAKO ONESPENA.

2016 H 700 0002 espedientea

Segidan, aztergai honi dagokion akordio-zirriborroa irakurri du idazkari andreak. Amaieran, proposamena bozkatu dute. Hona hemen emaitza:

Aldeko botoak:	11	(9 EAJ-PNV, 2 PSE-EE)
Aurkako botoak:	2	(2 Irabazi Zarautz)
Abstentzioak:	7	(7 EH Bildu)

Horrela bada, adierazitako gehiengoaz, Udalbatzarrak honako hau erabaki du:

“Udal gobernu-taldeak hala eskatuta, Hirigintza eta Ingurumen Departamentuak 19-2 areako –OD SANTAITURRIETA– antolamendu xehatua aldatzeko dokumentua idatzi zuen. Area hori plan orokorreko Talaimendiko eremuaren barruan dago.

Aldaketak honako proposamen hauek dauzka:

- Aukera ematea etxebizitza kopurua bikoizteko familia bakarreko etxebizitza isolatuko eraikinetan edo bi familiako eraikin atxikietan.
- Eraikinen tipologia aldatzeko egingo diren plan bereziek errespetatu beharreko oinarritzko baldintzak definitzea (etxebizitza kolektiboa).

Espedientea Lurraldeko informazio-batzordeak aztertu eta eztabaidatu ondoren, 11 zinegotziren aldeko botoarekin eta, beraz, legezko gehiengo osoaren “quorum”arekin, Udalbatzarrak

ERABAKI DU

Lehenengoa.- Hasierako onespena ematea hiri antolamenduaren plan orokorraren aldaketari, Talaimendi eremuko 19-2 areako –OD SANTAITURRIETA– antolamendu xehatuaren zehaztapenei dagokienari.

Zarauzko Udalak berak abiarazi du espedientea.

Bigarrena.- Espedienteak udal plangintzako aholku batzordearen txostena jaso beharko du.

Hirugarrena.- Espedientea jendaurrean jartzea, interesdun orok bidezkoak iruditzen zaizkion alegazioak aurkeztu ahal izan ditzan. Jendaurreko epea hilabetekoa izango da, eta erakustaldiaren izapidea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta probintzian gehien zabaltzen den egunkarian jakinaraziko da.”

Une honetan **kontu-hartzaile** andrea bilkuratik joan da.

– UDAL TALDEEK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENAK

11.- Irabazi Zarautz taldearen mozioa: bai Europar Batasunaren eskakizunen bai apirilaren 2/2012 Lege Organikoak (apirilaren 27koak, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoak) ezartzen duenaren ondoriozko austeritate politikak arbuizatzeko

2016 O 001 0026 espedientea

Ondoren, IRABAZI ZARAUTZ taldeak aurkeztutako proposamena irakurri dute. Bertan, EH BILDU udal taldeak eskatuta eta talde aurkezleak onartuta, seigarren puntu berri bat gehitu dute. Hona hemen testu osoa:

MOZIOA

ZIOEN AZALPENA

Europar Batasunak aurrekontu egonkortasuna bermatzeko egin zuen eskaeraren ondorioz, 2011ko irailean Espainiako Konstituzioaren 135. artikulua aldatu zen, hau da, defizit publikoa mugatu eta zorraren ordainketa lehenesten duen arau fiskal bat sartu zuten. Apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoak, Aurrekontu Egonkortasunari eta

Finantza Iraunkortasunari buruzkoak, batetik, garatu egin zituen Konstituzioan, erreferendumik gabe, egindako aldaketaren printzipioak; eta bestetik, egonkortasun finantzarioaren printzipio konbentzionalak ezarri zituen zenbait arau fiskalen bitartez; Espainiako administrazio publikoek errespetatu egin behar dituzte arau fiskal horiek, ustez, beren finantzak saneatzeko.

Eta hala, hauexek dira urrezko hiru arau fiskalak: defizit publiko muga jakin bat ez gainditzea, zor-muga jakin bat ez gainditzea eta Gastuaren Araua errespetatzea. Azken arau hori da Legearen elementu maltzurrenetako bat, izan ere, inongo administrazioek ezingo du gastu publikoa handitu Barne-produktu Gordinerako aurreikusitako hazkundera baino gehiago, nahiz eta defizitaren helburua bete.

Adibidez, estatu mailarako Barne-produktu Gordina %2a izango dela aurreikusita badago, estatuko, autonomia erkidego bateko edo udal bateko gastua ezingo da %2a baino gehiago handitu. Eta horrek oso egoera maltzurak eragiten ditu, administrazioak erabat lotuta geratzen direlako, eta mugatu egiten duelako politika sozialak inplementatzeko gaitasuna. Ondorioz, superabita daukaten udaletan, gastatzeko eta herritarrentzat beharrezkoak diren inbertsio sozialak egiteko gaitasuna mugatuta geratzen da.

Horrez gain, Lege horretan ezarritakoaren arabera, arau horietako bat urratzen denean, dagokion administrazioa Plan Ekonomiko Finantzario bat egitera behartuta dago. Horrek berekin dakarrena da hurrengo ekitaldietako diru-sarrerara eta gastuak aldatzeko konpromisoa, agindu fiskal konbentzionalak bete ahal izateko berriz ere.

Tokiko finantzazioaren egungo diseinuaren helburu ezkutua, eta baita egungo aurrekontu-arauena ere, eremu publikoaren tamaina murriztea da, eta horrek ito egingo ditu udalak eta galarazi egingo du herritarren ongizatean hobekuntzak egotea. Arau horiek euskal udalei ere negatiboki eragiten diete, nahiz eta Foru Aldundien eskumena den babes finantzarioa.

Joan den urtean autonomia erkidegoetako defizita 16.999 milioikoa izan zen eta administrazio zentralarena, berriz, 25.000 milioikoa. Udalek zero defiziteko helburua erraz lortzeaz gain (5.000 milioi euro inguruko superabita lortu baitzuten), laugarren urtez jarraian, 5.000 milioi euro inguruko superabita ere lortu dute.

Horrek guztiak adierazten du, hain zuzen ere, toki korporazioak direla gehien behar dutenak maniobra fiskalerako aukera handitzea eta beren autonomia berreskuratzea, aukera emanez, bai zerbitzuen prestazioa modu eraginkorrean nola eman erabakitzeke, bai eta enplegu publikoa mantentzeko ere.

Aurrekontuak murrizteko arau horiek amildegira garamatzate zuzenean, ekonomiari kalte handia eragiten diotelako, pobretu egiten dutelako, eta gehiengo sozialaren ongizatea nabarmen murrizten delako. Gainera ez du balio ezarritako helburu fiskalak betetzeko; beraz, bide erabat okerra da.

Egoera honen aurrean beharrezkoa da estrategia aldatzea, gobernuari eskatu behar zaio, batetik, Europar Batasunarekin negoziatzea defiziteko helburu berriak, eta nolatan ere, jarduera ekonomikoa sustatuta, eta diru-sarrerak handituta, egin dakiola aurre defizitari, inola ere ez, beharrezkoa den gastua murriztuta. Horri erantzuteko paradigma aldatu egin behar da, estatukideek aukera izan behar dute beren defizit publikoak handitzeko, zuzeneko diru-finantzazioaren bidez (Europako Banku Zentralak dirua sortuta horretarako), eta finantzazio hori ekonomikoki gehien kaltetutako jendearen egoera hobetzera bideratu behar da. Beste alde batetik, dagozkion neurriak hartu behar ditu gastuaren araua murrizteko, zertarako? batetik, epe ertainera ekonomiak hazi behar duena baino gehiago gastatu ahal izan dezaten superabita daukaten udalek, bestetik, gastuaren sabaia zehazten duen araua ere alda dezaten, muga horixe baita Ogasun Ministerioak udal aurrekontuak diseinatzeko markatzen duen gehienezko muga. Hartara, udalek etorkizunean izan ditzaketen beharren arabera diseinatuko lirake aurrekontuak eta ez aurreko ekitaldian prestatutako aurrekontuaren arabera.

Estatu osoko eta kolore guztietako udalek eskatzen dutena ez da gastuaren sabaia kentzea, baizik eta sabai hori beste era batera kalkulatzeko, hots, gaur egungo sistemak aurreko ekitaldian benetan gastatutakoa hartzen du erreferentzia modura, eta ez aurrekontuan sartutakoa, eta horrek asko mugatzen du udalek inbertitzeko dituzten posibilitateak.

Horregatik guztiatik, aipatutako aurrekontu-murrizketei buruzko legeei aurre egitea helburu duten hainbat ildo estrategiko bultzatzea beharrezkoa da, hartara, administrazio publiko desberdinek aukera izan dezaten gure herrialdeko herritarren ongizatea hobetzeko ekimenak martxan jartzeko. Eta helburu hori lortze aldera, toki erakundeek elkarrekin lan handia egin dezakete murrizketa-politikei aurre egiteko eta murrizketa horiek ahalbidetzen dituen lege-esparrua ere aldatzeko.

AKORDIOAK

LEHENA: Zarauzko Udala prest dago, beste udal batzuekin batera, estatu mailako kanpaina batean lan egitera, Europar Batasunaren eskakizunetatik eratorritako austeritate-politiken aurka. Defizit publikoaren muga jakin bat ez gainditzea, zormuga jakin bat ez gainditzea eta Gastuaren Araua errespetatzea... bezalako arau fiskaletan jasota daude politika horiek. Gaur egungoa bezalako krisietan herritarrek behar dituzten politika sozialak inplementatu ahal izateko, zergen mugak kentzea da egingo genukeen lanaren helburua.

BIGARRENA: Zarauzko Udalak Espainiako Parlamentuari eskatzen dio beharrezkoak diren neurriak har ditzala gastu araua malgutzeko, hartara, ekonomia epe ertainean haziko dena baino gehiago gastatzeko aukera izan dezaten superabita daukaten udalek eta gastu sabaia zehazten duen araua aldatua izan dadin, hau da, gastua udalek etorkizunean dituzten beharren arabera izan dadin, eta ez aurreko ekitaldian egindako aurrekontuaren arabera.

HIRUGARRENA: Zarauzko Udalak Gobernu Zentralari eskatzen dio errespetatzea EAeren autonomia fiskala eta finantzarioa, Kontzertu Ekonomikoan jasota dagoena, eta errespetatzea Foru Aldundiek euskal udalen finantzazioa babesteko daukaten eskumena, udaletan aurrekontu egonkortasuna ahalik eta modurik zabalenean aplikatu ahal izan dezaten.

LAUGARRENA: Zarauzko Udalak Eusko Legebiltzarrari eta Herri-dirubideen Euskal Kontseilua osatzen duten administrazioei eskatzen die etorkizuneko Aportazioen Legeak berma diezaiela euskal udalei, beren eskumenak garatzeko beharrezkoak dituzten baliabide guztiak.

BOSGARRENA: Zarauzko Udalak Gobernu Zentralari eskatzen dio Europako Batzordearekin negoziatzea ditzala defizit helburu berriak, hau da, murrizketa horrek epe ekonomiko handiagoak ekar ditzala, eta jarduera ekonomikoa eta diru-sarrerak handituta lor dadila murrizketa eta ez, ordea, gastua murriztuta, gastua beharrezkoa baita gaur egungo egoera sozio-laborala zein den ikusita.

SEIGARRENA: Zarauzko Udalak gobernuari eskatzen dio Europako Batzordearekin eta Europar Batasuna osatzen duten herrialdeetako gobernuarekin negoziatzea dezala Europako Banku Zentralaren estatutuen aldaketa. Hori beharrezkoa eta lehenbailehen egin beharrezkoa da, estatukideek beren defizit publikoak finantzatu ahal izan ditzaten, erakunde horrek zuzenean emandako diru-finantzazioaren bidez. Finantzazio hori gehien kaltetutako herritarren egoera ekonomikoa hobetzeko izan behar du.

ZAZPIGARRENA: Zarauzko Udalak eskatzen du, arlo guzti hauek hobeto kudeatzeko, administrazio maila guztietan, helburua eskubide sozialak bermatzea izan beharko lukeela. Eta hurbiltasun printzipioa aplikatuz, erabakitze gunea herritarrengandik ahalik eta hurbilen egon behar da. Geroz eta argiago dago ezin dugula utzi herritarroi afektatzen dizkiguten erabakiak gure kontrolik gabeko guneetan erabakitzen.

ZORTZIGARRENA: Akordio honen berri ematea udalerrri honetako herritarrei, Herri-dirubideen Euskal Kontseiluari, Gobernu Zentralari, Diputatuen Kontseiluko talde parlamentario guztiei eta Europako Batzordeari.

Bukaeran, batzarburu jaunak bilkura eten egin du, gaueko zortzi eta erdietan, udal taldeek azter dezaten egindako aldaketa. Handik hamar minutura, bederatziak hoge gutxitan, berriro ekin diote osoko bilkurari, eta gaia eztabaidatu dute.

Eztabaida amaitutakoan, gaur egun Udalbatza osatzen duten 20 zinegotzien aldeko botoarekin, Udalbatzarrak transkribatutako mozioa onartzea ERABAKI DU.

12.- EAJ-PNV taldearen mozioa: Bost urte ETak "su etena" iragarri zuenetik

2016 O 001 0027 espedientea

Eguneko aztergai honetara iritsita, IRABAZI ZARAUTZ eta EH BILDU udal taldeetako zinegotziek batzar-aretotik alde egin dute, ez eztabaidatzegatik mozio hau ezta hurrengoa ere.

Batzarburu jaunak eten egin du bilkura, gaueko bederatziak eta hamar direnean, taldeek eztabaidagai den mozioari buruz delibera dezaten. Handik bost minutura, bederatziak eta laurdenetan, berriro ekin diote osoko bilkurari, EH BILDU eta IRABAZI ZARAUTZ udal taldeetako zinegotziak bertan izan gabe.

Segidan, EAJ-PNV udal taldeak aurkeztutako proposamena irakurri dute. Honela dio:

BOST URTE ETAK "su etena" iragarri zuenetik

Urriaren 20an ospatu dugu ETak behin betiko 'su etena' iragarri zueneko bosgarren urteurrena. Nork esan bost urte besterik ez direla igaro. Gizarte honen denbora lerroan urrun geratzen den zerbait dirudi; eta horrekin batera, erailketak, bahiketak, gure herriari egindako estortsioek ere urrunekoa dirudite. Azken bost urteotako gauzarik esanguratsuena: gure hiritargoak arin baino arinago eta heldutasun osoz eman dio amaiera gure historiaren aldi ilun eta tragiko horri.

Baina, indarkeria horren hainbat ondoriok bizirik diraute oraindik gure artean, eta horiek ez dira besterik Gabe itxi behar, behar bezala eta justiziaz amaitu behar dira. Behin eta berriz errepikatu dugu benetako bakea indarkeria eza baino askoz gehiago dela. Horregatik, indarkeria eza horretatik bake egoerara igarotzeko, gure ustez, erantzunak bost esparrutan eman behar dira:

- ETaren armagabetzea, bere disoluzio formalerako eman beharreko urrats gisa. Ez dauka zentzurik armak eta lehergailuak izatea, horiek erabiltzeko borondaterik ez badago. Eta, hori da, gainera, ETak euskal gizarteari zor dion zerbait. Prozedura sinplea, segurua eta egiaztagarria bilatu beharko da hori berehala eman dadin. Estatuko Administrazioaren aldetik armagabetze hori eragozteko egiten ari dena ezin da helburu hori lortzeko oztopoa izan. Ameskerietan ere ez dugu erori behar, etorkizuneko negoziaketa prozesuetan "armak presoen truke" trukatu ahal izango

direlako esperoan. Armagabetzea burutzeko aukerak egon badaude. Eusko Jaurlaritzak 2014ko abenduan plan bat aurkeztu zuen eta uste dut plan horrek bide bat eskaintzen duela.

- Memoria bidezko bat. Indarkeriaren biktimek eta, oro har, gizarte osoak, memoria bat merezi du 50 odol eta min urte horietan eragin diren zauriak orbantzeko eta gainditzeko. Oroimen eta pedagogia soziala behar dira halakoak ez errepikatzeko antidoto gisa.

- Iraganari buruzko hausnarketa kritiko eta autokritikoa. Besteek egingo dutenaren zain egon gabe eta, are gutxiago, bakoitzak egin behar duen autokritika besteek egingo dutenaren arabera baldintzatu gabe. Bakoitzak bere aurpegiari begiratu beharko dio herri honen historiaren ispiluan, eta beren ekintzek eta egin gabe utzitakoek eragin duten min bidegabea aitortu beharko du.

- Espetxe politika berria. Indarkeria terroristaren salbuespen egoera amaituta, lege antiterroristaren salbuespen egoera amaitu beharra dago. Bestelako espetxe politika behar da, gizalegearen arabera, adimentsua eta ETaren jardunaren ondoriozko agirikoena bideratzen lagunduko duena.

- Bizikidetzaren normalizazioa. Ezberdinen arteko bizikidetzaren balore gisa indartu behar dugu, Euskadi berria bakean eta askatasunean oinarritzeko giza aberastasuna den heinean. Iraganeko traumak eta zauriak gainditzea, etorkizunari ezkortasunik gabe begiratu ahal izatea eta, batez ere, etorkizun hori gizarte ireki, anitz eta garatuarekin partekatzea.

Guzti hori kontutan izanik, Zarauzko Udala osatzen dugun talde politikoei

1. ETaren berehalako disoluzioa exijitzen dugu.
2. ETaren premiazko, aldebakarreko, guztizko eta behin betiko armagabetzea exijitzen dugu
3. Garai berri honen aurrean, espetxe politika berri bat, lege antiterroristen etetea eta Entzutegi Nazionalaren desagertzea exijitzen dugu.
4. Indarkeriaren biktimekin eta gizartearekin bidezkoa den memoria baten alde lan egiteko konpromisoa berresten dugu.
5. Zarautzen bizikidetzaren normalizazioaren alde lan egiteko konpromisoa berresten dugu.

Proposamena bozketan jarrita, emaitza hau izan du:

Aldeko botoak:	11	(9 EAJ-PNV, 2 PSE-EE)
Kontrako botoak:	—	
Abstentzioak:	—	

Beraz, adierazitako botoekin, Udalbatzarrak ERABAKI DU EAJ-PNV udal taldeak aurkeztutako mozioa ONARTZEA.

13.- PSE-EE taldearen mozioa: ETA gaitzesteko

2016 O 001 0028 espedientea

Azkenik, PSE-EE udal taldeak aurkeztutako mozioa irakurri dute. Hona hemen testua:

ETA GAITZESTEKO MOZIOA

Zioen azalpena

2011ko urriaren 20an ETA erabat garaituta geratu zen.

Hala ere, 5 urte geroago, oraindik bizirik jarraitzen du. ETAk jarraitzen duen bitartean, ezingo dugu benetako bakeari buruz hitz egin, egote hutsarekin mehatxuak hor jarraitzen duelako.

ETAk gizartearen eta demokraziaren aurka egin duen terrorismoak ehundaka pertsona zauritu eta 800 hildakotik gora utzi ditu, horietako 23 haurrak. Zarautzen 16 herritar hil ditu ETAk, eta beste asko larriki zauritu ditu. Besteak beste, Borja Blanco datorkigu gogora, urtebeteko umetxoa zela buru-hezurrean metraila utzi baitzion ETAk. Herritarren ordezkari garen aldetik, gure egitekoa da biktimak gogoratzea eta euren memoria omentzea. Ahaztea ezin da onartu. Pentsaezina da. Onartezina den bezala hiltzaileak gudari modura hartzea, eta kartzeletatik irteten direnean omenaldiak egitea. Onartezina den bezala biktimen eta euren hiltzaileen minak berdin ikustea. Ez zuen halakorik gertatu behar. Inortxok ere ez zuen justifikatu eta babestu behar, ez lehen, ez orain.

ETA garaituta geratu zenetik 5. urteurrena betetzen den honetan, ospatu egin behar dugu ez delako heriotza eta atentatu gehiago egon. Baina ospakizun hau tristuraz beteta dago ETAk eragin dituen biktima guztiengatik.

Bidezkoa da gaurko egunez biktima horiek guztiak gogora ekartzea, eta bereziki, udalbatzar honetan gogoratzea ETAk Zarautzen hil zituen pertsona guztiak. Gogoratu egin behar ditugu, baita ere, atentatu bategatik ondorio fisikoak betiko geratu zaizkien biktima guztiak, estortsioa, mehatxua, eraso pertsonala, ondasunetan erasoak eta abar jasan zituzten pertsona guztiak. Gogoratu egin behar ditugu, baita ere, horien familia eta lagunak, horiek ere zauri ikusezina eta ezabaezina mantentzen dute eta.

Horixe da ETAREN palmares negargarria. Horixe da lortu duten gauza bakarra. Eta garrantzitsua da ETARI gogoraraztea, herriari hauxe bakarrik eman diola: 50 urte luzeetan, odolez eta minez osatutako zerrenda luze bat, besterik ez. Ez du erreibindikazio politiko bakar bat ere lortu, zuzenbide estatu batek ezin duelako xantaia terroristaren aurrean amore eman. Terrorismoa ezin da ikusi helburu politiko bat lortzeko modua bezala.

Baieztapen hori garbi-garbi adierazi eta jakinarazi behar diegu herritarrei, bereziki gazteei; azken horiek, zorionez, ez dute zuzenean ezagutu terrorismoa, baina inoiz ere berriro gertatu ez dadin. Ezerk ere ez, ideia edo helburu bakar batek ere ez, ezin du inoiz ere terrorismoa justifikatu.

ETAren biktimek gizatasuna, ardura sozial eta demokratikoa erakusten dute. Izugarri sufritu dute, eta mina eduki arren, erabaki dute mendekurik ez hartzea, eta gorrotoan ez bizitzea. Biktimizazio bikoitza jasan dute, alde batetik, ahazturak, marjinazioak eta mespretxuak eragindakoa eta, bestetik, mehatxuak berak eragindakoa. Guk gutxienez egin dezakeguna da min gehiago ez eragin, tamalez gertatzen den bezala, hiltzaileei omenaldiak egiten utzita.

Herri honek esker ona zor die, eta hori baino askoz ere gehiago: memoria, erreparazioa eta justizia.

Biktimek memoria, erreparazioa eta justizia izateko eskubidea daukate eta hala esaten dute. Lehenengo erreparazioa eta oinarritzkoena da terrorismoari legitimitatea kentzea eta guztiz desagertzeko eskatzea.

Horregatik, PSE-EE udal taldeak honako mozioa onartzeko proposatzen dio Zarauzko udalbatzarrari:

MOZIOA

- 1.- ETAren jarduera terrorista gaitzestea
- 2.- ETARI eskatzea berehala desegiteko eta oraindik dauzkan armak entregatzeko.
- 3.- ETARI eskatzea justiziarri laguntzeko oraindik argitu gabe dauden 300 atentatuak argitzen, eta bereziki, Zarautzen eta zarauztarren kontra egin zituen atentatuak.
- 4.- Mozio honen berri ematea Zarauzko hildakoen familiei, eta oro har, zabalkundea ematea ohiko komunikabideen bidez.

Ondoren, proposamena bozkatu dute. Honako hau izan da emaitza:

Aldeko botoak:	11	(9 EAJ-PNV, 2 PSE-EE)
Kontrako botoak:	–	
Abstentzioak:	–	

Horrenbestez, adierazitako botoekin, onartu egin dute PSE-EE udal taldeak aurkeztutako mozioa.

Aurreko bi mozioen eztabaida eta bozketa amaitu ostean, bilkurara itzuli dira EH BILDU eta IRABAZI ZARAUTZ udal taldeetako zinegotziak.

14.- RUEGOS Y PREGUNTAS

Carvajal andreak, EH BILDU taldeko zinegotziak, galdera egin du etxez etxeko laguntza zerbitzua kontratatzeko klausula-agiriei buruz.

Vazquez andreak erantzun dio eskatutako informazioa emagngo diotela.

Eta aztertzeko besterik ezean, batzarburu jaunak hala aginduta, osoko bilkurari amaiera eman diote, gaueko bederatzi eta erdietan, eta nik, idazkariak, horren guztiaren fede ematen dut